

# Altzan hizkuntz normalizazioa helburu

**Kontseiluak plan estrategikoa martxan du Euskal Herri osoan.**

**Orain helburua plan hori herrietara eta auzoetara eramatea da. Horretarako, lehendabiziko esperientzia egiten ari da zenbait tokitan. Toki horietako bat Altza da, eta hilaren 17an bertako jarraipen batzordea aurkeztu zen.**

**E**uskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak Bai Euskarari Akordioa Altzan garatu nahi du. Hau da, bertako gizarte eragileei plan bat egin dezaten proposatu nahi die, euskararen normalizaziora heltzeko. Azken asteotan zenbait aurrerapauso eman dira eta

azken urratsa Altzako Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordea osatzea izan da. Aurkezpena joan den ostegunean, hilak 17, egin zen Casares kultur etxean.

lazko abenduaren 13an Altzako Bizarra kultur elkarteak eta Kontseiluak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, Bai Euskarari Akordioa Altzan aurera eramateko. Egun berean Bizarrain-ek eta Euskararen Udal Patronatuak beste hitzarmen bat sinatu zuten, akordio hori Donostiako Plan Orokorrearekin uztartzeko. Altzako plan estrategikoaren lehen urratsak izan ziren haietxek.

## Gizarte eragileekin harremanetan

Hitzarmenak sinatuta, bi teknikarilanean hasi dira eta besteak beste, auzoko gizarte eragileei gutun bana bidali diete prozesuaren berri emateko eta ber-

**106 eragilerik  
planean parte  
hartzeko gonbitea  
egin zaie**

tan parte harteko gonbitea egiteko. Zehatz mehatz, hiru arlotako 106 eragilerik helarazi zaie gutuna: ikastetxeak, kultur arloa, eta gazteria eta kirol mundua. Horrez gain, teknikariok eragileekin zuzenean harremanetan jarri dira.

Esan bezala, joan den ostegunean, hilak 17, beste urrats bat eman zen bide horretan eta prozesuari jarraipena egingo dion batzordea eratu zen. Jarraipen batzordea Koldo Cacho San Pablo elizako parrokoak, Altzaprint enpresak, Euskararen Udal Patronatuak, Donostiako hainbat elkarte biltzen dituen Batzen-ek eta Kontseiluak osatu dute.

Hemendik aurrera, prozesua Euskal Herri osoko plana egiteko ibilitako bide bera izango da. Lehen aipatutako hiru arloetako eragileek talde bana osatu eta euskararen egoera aztertu, normalizazioa lortzeko ildo estrategikoak ezarri eta ekintzak proposatuko dituzte. Hau da, Altzako taldeek, elkarteek, enpresek eta erakundeek beraiek sortuko dute plana. Ondoren, gizarte eragileok konpromisoak hartuko dituzte eta konpromiso horiek betetzen dituzten neurrian Kontseiluaren ziurtagiria jasoko dute.

Bestalde, Altzako plana Donostiako Plan Orokorrearekin uztartu nahi da. Ildo honetatik, zenbait erakundetako eta elkartetako ordezkariak, Udala tartean, uztarketa nola egin aztertzen ari dira.

Altzako plan estrategikoa lehen pausok ematen ari da. Bertako herritarrek datozen egunotan prozesuaren nondik-norakoak azaltzen dituen berripapera jasoko dute etxean. Ondoren, gizarteak berak erantzun beharko du. Kontseiluak Euskal Herri osoko plangintzan hartutako konpromisoak ontzat jo ditu. Emaizta bera edo hobea izango ahal du Altzakoak!



Hizkuntz normalizazioan aurrerapausoak ematea da Altzako Bai Euskarari Akordioaren helburua.